



ANOETAKO  
UDALA

## 7/2024 UDALEKO OSOKO BILKURA

### 2024KO MAIATZAREN 28AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

#### **BERTARATUTAKOAK:**

##### **ALKATEA**

Egoitz Luisa Urkola (EH Bildu taldea)

##### **ZINEGOTZIAK:**

Ana Elozegi Artola (EH Bildu taldea)  
Bakarne Garmendia Usabiaga (EH Bildu taldea)  
Maialen Mujika Lizaso (EH Bildu taldea)  
Aitzol Esnaola Zubeldia (EH Bildu taldea)  
Mikel Olano Aburuza (EH Bildu taldea)  
Nuria Carbonell Miranda (EAJ taldea)  
Agurtzane Nuñez Yarza (EAJ taldea)  
Jaime Peon Ormazabal (EAJ taldea)

##### **IDAZKARIA:**

Erika Sagarzazu Camino

##### **EZ BERTARATUTAKOAK:**

Aitzol Arocena Zufiria (EAJ taldea)  
Amaia Urkola Arocena (EH Bildu taldea)

Anoetako Udaletxean, 2024ko maiatzaren 28an, arratsaldeko 19:05etan, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko ohiko osoko bilkura antolatu da, Egoitz Luisa Urkola Alkatearen lehendakartzapean, eta Erika Sagarzazu Camino aritu da Idazkari lanetan.

Alkatearen aginduz bilerari hasiera emanda, eta gai-zerrendari heldu aurretik, Alkateak adierazi du badela Alkatetzaren dekretu bat, 2024ko maiatzaren 24koa, horren gaineko Udalbatzaren berrespena nahiko lukeena, xede duen edukia dela eta. Dekretuan azaltzen den bezala, azken urteetan festetako barraka eta bestelako jolasek egiten duten zoru publikoaren okupazioarekiko tasa eguneratu gabe zegoenez, 2024an aplikatu beharreko ordenantza fiskaletan zenbait aldaketa burutu ziren. Hala, 2023ko abenduaren 27an argitaratutako 247. GAOn ordenantza fiskalen aldaketen behin betiko testua argitaratu zen. Orain, 2024 urteko Anoetako Herri Festak martxan daudela (maiatzaren 24tik 26ra eta 29tik ekainaren 2ra), Udalaritasa horiek aplikatzea egokitu zaionean, konturatu da ordenantza fiskalean egindako eguneraketa horiek ez direla batere egokiak, igoera nabarmena eta neurrigabea ekartzen dutelako. Feriantee beren postuak jartzeagatik aurten likidatu beharreko tasen eta aurreko ekitaldietan indarrean zeuden ordenantzen arabera kobratzen zitzaizkien tasen arteko aldea azaldu du, baita igoera neurrigabe hori aplikatzeak aurtengo festetan barrakarik ez izatearen arriskua ere, Arrasaten geratu den bezala. Egoera horrek bultzatuta, adierazi du behartuta ikusi zela, herriaren eta herritarren interesa lehenetsiz, 2024ko maiatzaren 24ko dekretua ebaztera. Horregatik, eta ikusita ebazpen horrek Udalbatzak onartutako ordenantzen gainean eragiten duela, eskatzen du gai-zerrendan puntu berri bat sartzea eta puntu horretan Alkatetzaren dekretuaren gaineko Udalbatzaren berrespena bozkatzea.

Bi alderdi politikoak ados agertu dira 2024ko maiatzaren 24ko Alkatetzaren dekretua berresteko proposamenaren gai-zerrendan sartzearekin. Beraz, Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 83. artikuluan oinarrituta, Udalbatzak aho batez onartu du goian adierazitako gaia gaurko Osoko Bilkurako gai-zerrendan sartzea, ebazpenen 4. puntu gisa.

Ondoren, Alkatearen aginduz, saio honetako gai zerrendako gaiak aztergai jarri zaizkie Udalbatzako kideei, eta gai horiei buruz ondorengo erabakiak hartu dituzte:

## I. EBAZPENAK

### 1.- AZKEN BI BILKUREI DAGOZKIEN AKTAK ONESTEKO PROPOSAMENA.

2024ko apirilaren 30ean eta maiatzaren 13an egindako bi Osoko Bilkuren aktak aho batez onartu dira.

### 2.- “LASARBE” A-14 SEKTOREAREN PLAN PARTZIALA ALDATZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak hitza hartu du eta azaldu du, 2024ko martxoaren 21ean egindako Osoko Bilkuran, Udalbatzak ondorengo ebatzi zuela:

“...

### EBAZPENA

**LEHENENGOA.** Hasiera batean onestea A-14 Lasarbe sektoreko plan partzialaren 2. aldaketa puntuala.

**BIGARRENA.** Jendurrean jartzea espedientea, hogeit eguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurralde historikoan zabalkunderik handiena duen egunkarietako batean argitaratuko diren ediktuen bidez, eta azken argitalpenetik aurrera. Iragarkia Udaletxeko Iragarki Oholean eta [www.anoeta.eus](http://www.anoeta.eus) web orrian ere argitaratuko da.

Epe horretan, espedientea Udaletxeko Bulego Orokorretan egongo da ikusgai, jendaurreko ordutegian.

...”.

Akordio hori 2024ko apirilaren 9ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko 68. alean argitaratu zen, baita 2024ko apirilaren 15eko Diario Vasco egunkariko alean ere.

Argitaratu zenetik, hogeit egun baliouduneko epea pasa ondoren, ez da inolako alegaziorik aurkeztu akordio horren aurka. Idazkariak hala ziurtatu du 2024ko maiatzaren 9an helarazitako ziurtagirian.

Aurrekoak entzunda eta espedienteari erantsitako dokumentazioa azterturik, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

### EBAZPENA

**LEHENENGOA.** Behin behinean onestea A-14 Lasarbe sektoreko plan partzialaren 2. aldaketa puntuala.

**BIGARRENA.** Bidaltzea behin-behineko onarpen-erabaki hau Gipuzkoako Foru Aldundira, gehienez ere hamar eguneko epean, behin betiko onar dezan.

### 3.- TRANSFERENTZIA BIDEZKO KREDITU ALDAKETAREN 2024-KALD-000007-00 ZENBAKIDUN ESPEDIENTEA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak hitza hartu du eta transferentzia bidezko kreditu aldaketaren 2024-KALD-000007-00 espedienteari hasiera ematea agintzen zuen 2024ko maiatzaren 23ko probidentziaren edukia azaldu du.

Alkatetzak egindako kreditu transferentzien proposamena ondorengoa da:

#### Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0000.683.153. 40.01 2024	OBREN BRIGADARAKO MAKINARIA EROSTEA	60.000,00	50.000,00	10.000,00
	<b>GUZTIRA</b>	<b>60.000,00</b>	<b>50.000,00</b>	<b>10.000,00</b>

#### Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0000.227.151.00.07 2024	AZTERKETAK ETA LAN TEKNIKOAK. HIRIGINTZA	70.473,60	50.000,00	120.473,60
	<b>GUZTIRA</b>	<b>70.473,60</b>	<b>50.000,00</b>	<b>120.473,60</b>

Idazkari Kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki, Toki



Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 29. artikuluan ezarritakoarekin, baita Aurrekontua Gauzatzeko urteko Arauekin ere.

Aurrekoak entzunda eta espedienteari erantsitako dokumentazioa azterturik, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

#### **EBAZPENA**

**LEHENENGOA.** Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin.

**BIGARRENA.** Kontuhartzaitzak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa delako.

#### **4.- 2024KO MAIATZAREN 24KO ALKATETZAREN DEKRETUA BERRESTEKO PROPOSAMENA, 2024KO ANOETAKO HERRIKO JAIETAN FERIANTEEI KITATU BEHARREKO TASEI BURUZKOA.**

Alkateak hitza hartu du eta azaldu du 2024ko maiatzaren 24ko Alkatezaren dekretuaren edukia (horren kopia bertaratuen artean banatu da), baita hori ebazteko zioak ere.

Bertaratutakoen artean aztertu da ferianteei beren postuak jartzeagatik aurten likidatu beharreko tasen eta aurreko ekitaldietan indarrean zeuden ordenantzen arabera kobratzen zitzaizkien tasen arteko aldea.

Aurrekoak entzunda eta eztabaidatuta, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

#### **EBAZPENA**

**BAKARRA.** Berrestea 2024ko maiatzaren 24ko Alkatezaren dekretua, 2024ko Anoetako herriko jaietan ferianteei kitatu beharreko tasei buruzkoa.

## **II. GOBERNU ORGANOEEN KONTROLA ETA FISKALIZAZIOA**

### **ALKATETZA**

#### **5.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.**

Alkatezak 2024ko apirilaren 16tik maiatzaren 15era bitarte, biak barne, emandako ebazpenen berri eman du.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

## ANTOLAKUNTZA

### **6.- KONTROL-ORGANOAK EGINDAKO ERAGOZPENEZKO TXOSTENEN AURKA ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.**

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 70.6 artikuluan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauaren 12. artikuluan xedatutakoa jarraituz, kontrol-organoak lehengo Osoko Bilkuratik egindako eragozpen-txostenen aurka Alkateak emandako ebazpenen berri ematen zaio Korporazioari (aurreko puntuan berri eman direnen artekoak):

245. DEKRETUA		
2024.04.18		
<b>Hartzekodunak</b>	<b>IFZ / IFK</b>	
TOLOMENDI	G20326237	
<b>Prozedura</b>		
2024 – 1. hiruhileko IKT dinamizazio eta aholkularitza zerbitzua		
<b>Faktura zenbakia</b>	<b>Bidalketa data</b>	<b>Zenbatekoa (BEZ barne)</b>
F-11	2024.03.11.	2.090,58 €
<b>Laburpena</b>		

Idazkaritza Kontu-hartzaileak 2024ko apirilaren 18an egindako eragozpenezko txostena, besteak beste, ondorengoa adieraziz:

- Kontratu txikiek ezin dute urtebeteko iraupena gainditu, eta ezin dira erabili errepikatzen diren prestazioak kontratatzeko. Dinamizazio eta aholkularitza lana lizitazio publikora atera beharko litzateke.
- Ez dago fakturari estaldura juridikorik ematen dion dokumenturik, ezta espedienterik ere. Tolomendirekin formalizatutako kontratua (legez kanpokoa, ondoren azalduko denaren arabera) 2021eko abenduaren 31n amaitu zen; horrezkeroztik Anoetako Udalak Tolomendi enpresaren zerbitzua jasotzen jarraitu du, inolako estaldura juridikorik gabe.
- Urtez urte enpresa berarekin kontratatu den zerbitzua da, publizitate- eta lehia-printzipioak betetzen direla bermatzeko beharrezko lizitazio-prozedurarik izan gabe.
- Anoetako Udalak kontratazio publikoa arautzen duen legedia eta oinarritzko printzipioak urratu ditu, goian adierazitako gastua ez baita oinarritzen gaur egun indarrean dagoen Sektore Publikoko legedian, ez kontratu txikiei buruzko otsailaren 28ko 1/2019 Jarraibidea argitaratzen duen Kontratazioa Arautzeko eta Ikuskatzeko Bulego Independentearen (OIREsCon) 2019ko martxoaren 6ko Ebazpenean, ezta Anoetako Udaleko kontratu txikiak arautzen dituen 1/2021 Jarraibidean ere, eta horietan jasotakoaren kontrakoa da; beraz, ez onargarria.
- Anoetako Udalak IKT dinamizazio eta aholkularitza zerbitzuak prozedura irekiaren edo murriztuaren bidez esleitu behar izango litzuke, beti ere kontratuen ezaugarrien, iraupenaren edota prezioaren arabera.
- Kontraturik ez dagoenez, eta, beraz, kontratuaren prezioa eguneratzeko formularik ez dagoenez, ezin da inola ere ordaindu zerbitzuak ematen dituen pertsonaren soldata-igoeragatiko gastuak.

## 271. DEKRETUA

2024.04.29.

Hartzekodunak	IFZ / IFK
MADDI SARASOLA EIZMENDI	44332401Q
ADO	Zenbatekoa
“P” fasea	2.585,71 €

### Kontzeptua

Maddi Sarasola Eizmendiren nomina: 2024ko apirileko nomina

### Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaileak 2024ko apirilaren 29an eragozpeneko txostena egin zuen 2023ko ekainaren 16an egindako eragozpeneko txostenaren edukia jasoz, non, besteak beste, ondorengoa adierazten den:

“I. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua garatzen duen eta programa-kontratuen luzapena ahalbidetzen duen Funtzio Publikoaren Lege aplikagarriarik ezean, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 10.1.c) artikuluan jasotako luzapen aukera ez da aplikagarria. II. Programa-kontratuen gehieneko iraupena hiru urtekoa da. III. Maddi Sarasola Eizmendiren programa-kontratuak aurreko epea gainditu du eta, beraz, gaurko egunetik aurrerako egoera eta horretarako Alkateak egindako eginbideak erabat deusezak dira. IV. Gehieneko iraupen-epea ez betetzeagatik ordaindu beharreko kalte-ordainaren gaineko erantzukizuma Alkatearena da; izan ere, Alkatea da, jakinda araudia guztiz urratzen duela, Maddi Sarasola Eizmendiren kontratua luzatzea erabaki duena”. Hori dela eta, 32/2018 Foru Dekretuak, abenduaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duenak eta Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duenak, bere 12. artikuluan xedatutakoa –zehazki, hirugarren paragraforaren b. eta c. letretan–, 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotakoarekin batera, Idazkari Kontu-hartzaile honek gastu-espeditentaren izapidetzea eteten duen eragozpena jartzen du, adierazitako akatsa zuzendu arte.

## 272. DEKRETUA

2024.04.29.

Hartzekodunak	IFZ / IFK
JOSE MIGUEL OTAÑO GARCARENENA	72445464H
ADO	Zenbatekoa
“P” fasea	1.987,39 €

### Kontzeptua

Jose Miguel Otaño Garcarenaren nomina: 2024ko apirileko nomina

### Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaileak 2024ko apirilaren 29an eragozpeneko txostena egin zuen 2022ko martxoaren 31ean egindako eragozpeneko txostenaren edukia jasoz, non, besteak beste, ondorengoa adierazten den:

“Gaur egun Jose Miguel Otaño Garcarenak duen kontratuak ez dituela betetzen programa bitarteko izendapen batek bete behar dituen betekizunak, barneratzen dituen ekintzak ezin direlako aldi batekoak, baizik eta ohiko ekintzak eta eginkizunak, 2019tik (gutxienez) kontratatzen eta ematen etorri direnak; Jose Miguel Otaño Garcarenena urteetan zehar kontratatzeko “programa” baten barruan ezkututako legez kontrako kontratazio kateatuak direla eta, hortaz, Anoetako Udala lege-iruzurra egiten ari dela; Jose Miguel Otaño Garcarenak betetze dituen eginkizunak egiturazkoak direla eta, beraz, horiek berriro ere kontratatu nahi balira, Udalak lanpostua sortu beharko lukeela (lanpostuen zerrendan eta plantilla organikoan), eta ondoren lan-eskaintza publikoaren bidez dagokion deialdia egin”.

**300. DEKRETUA**

2024.05.13

Hartzekodunak	IFZ / IFK
LANDARRI, S.L.U.	B20531448

**Prozedura**

Hilerriko zerbitzuak

Faktura zenbakia	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)
2404988023	2024.05.06.	332,39 €
2404988082	2024.05.06.	389,29 €
2404988083	2024.05.06.	282,16 €

**Laburpena**

Idazkaritza Kontu-hartzailetzak 2024ko maiatzaren 13an egindako eragozpeneko txostena, besteak beste, ondorengo adieraziz:

Ordainketa-agindua ez da onargarria, ez baitago gastu horiei estaldura ematen dien kontratazio-prozedurarik; izan ere, azkeneko kontratu txiki "irregularra" (urtez urte kontratu txikien bidez kontratatzen etorri baita) 2021eko abenduaren 31n bukatu zen eta ez da beste kontraturik egin, are gutxiago lizitaziora atera.

**301. DEKRETUA**

2024.05.13

Hartzekodunak	IFZ / IFK
GPASoft, S.L.	B61842134

**Prozedura**

Kiroldegian abonatu eta sarreraren kontrola egiteko programaren mantenu-zerbitzua

Faktura zenbakia	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)
1177	2024.04.22	847,00 €

**Laburpena**

Idazkaritza Kontu-hartzailetzak 2024ko apirilaren 18an egindako eragozpeneko txostena, besteak beste, ondorengo adieraziz:

- Ordainketa-agindua ez da onargarria, ez baitago gastu horri estaldura ematen dion kontratazio-prozedurarik;

- Kiroldegian abonatu eta sarreraren kontrola egiteko programaren mantenu-zerbitzua ezin da kontratu txiki bidez esleitu, segidako traktuzko prestazio errepikaria delako.

Bestalde, kontrol-organoak eginkizun kontu-hartzailea ez betetzearen gaineko ondorengo espedientearen berri eman du:

❖ OMI 2/2024 espedientea, Alkateak 237. Dekretuz (2024ko apirilaren 16koa) altxatutakoa, honako fakturen gainekoa:

– 636-E familiaren esku hartzea adin txikikoekin (NURA GIZARTE ELKARTEA)

- 725-E familiaren esku hartzea adin txikikoekin (SUSANA CHAPARTEGI ORTUN)
- 708-E familiaren esku hartzea adin txikikoekin (GIZA HEZIKETARAKO KALEXKA ELKARTEA)
- Estimulazio tailerra (LAHAR ELKARGOIA)

Jatorrizko espedientea	
636-E famili esku-hartzea	
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. 008/2024  FAKT-112 1700 2024.02.08	844,00 €
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. 012/2024  FAKT-237 1700 2024.03.07	844,00 €
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. 018/2024  FAKT-279 1700 2024.04.02.	844,00 €
Enpresa igorlea	Gastuaren deskribapena
NURA GIZARTE ELKARTEA G20779187	Herriko familiekin Giza Heziketa eskuhartzea, erreferentzi aurrekontuen arabera (espde. 636E)
Organo kudeatzailea	Organo eskuduna
Gizarte Zerbitzuak	Alkatea

Jatorrizko espedientea	
725-E famili esku hartzea	
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. TB-2024-F 6  FAKT-108 1436 2024.02.06.	195,00 €
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. TB-2024-F 10  FAKT-217 1436 2024.03.04.	195,00 €



Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. TB-2024-F 25 FAKT-305 1436 2024.04.02.	195,00 €
Enpresa igorlea	Gastuaren deskribapena
SUSANA ELENA CHAPARTEGUI ORTUN 44153322S	Sesiones individuales 20. artikulua (Barne-eragiketako salbuespenak)
Organo kudeatzailea	Organo eskuduna
Gizarte Zerbitzuak	Alkatea

Jatorrizko espedientea	
708-E famili esku hartzea	
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. 002-2024 FAKT-56 3807 2024.02.01.	824,11 €
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. 034-2024 FAKT-175 3807 2024.02.29	824,11 €
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. 072-2024 FAKT-311 3807 2024.04.03.	824,11 €
Enpresa igorlea	Gastuaren deskribapena
GIZA HEZIKETARAKO KALEXKA ELKARTEA G20745287	Anoetako esku hartze soziohezitzailea (Esku Hartze Familiarra) zerbitzua (espde. 708E)
Organo kudeatzailea	Organo eskuduna
Gizarte Zerbitzuak	Alkatea

Jatorrizko espedientea	
Estimulazio tailerreko saioak	
Gastuaren erregistro zenbakia	Zenbatekoa
Faktura zk. 2024/A06 FAKT-55 2026	162,75 €

2024.02.01.	
<b>Gastuaren erregistro zenbakia</b>	<b>Zenbatekoa</b>
Faktura zk. 2024/A46  FAKT-179 2026 2024.03.01.	2271,25 €
<b>Gastuaren erregistro zenbakia</b>	<b>Zenbatekoa</b>
Faktura zk. 2024/A91  FAKT-278 2026 2024.04.02.	186,00 €
<b>Enpresa igorlea</b>	<b>Gastuaren deskribapena</b>
LAHAR ELKARGOA ASOCIACIÓN DE INTERVENCIÓN PSICOSOCIAL G20380879	Oroimen saioetako orduak
<b>Organo kudeatzailea</b>	<b>Organo eskuduna</b>
Gizarte Zerbitzuak	Alkatea

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira, galderarik egin gabe.

## MOZIOAK ETA INTERPELAZIOAK

### GALDE-ERREGUAK

#### 7.- GALDE-ERREGUAK.

Ez da galde-erregurik egon.

Eta aztertzeko gai gehiago ez denez egon, Alkate-lehendakariak, Udalbatzara bertaratu direnei eskerrak emanaz, batzarraldia amaitutzat eman du akta honen goialdean adierazitako eguneko arratsaldeko 19:18tan. Idazkari naizen honek akta hau egin eta bertan jasotako guztia ziurtatzen dut.